

Año LXXX. urtea

273 - 2019

enero-abril  
urtarrila-apirila



# Príncipe de Viana

SEPARATA

---

## Aurreko urteen bidetik

Ángel ERRO JIMÉNEZ

---

# Sumario / Aurkibidea

## Príncipe de Viana

Año LXXX · n.º 273 · enero-abril de 2019

LXXX. urtea · 273. zk. · 2019ko urtarrila-apirila

## LITERATURA

Poemas en castellano escritos por mujeres en revistas literarias navarras del siglo XX

Consuelo Allué Villanueva 11

---

## ARTE / ARTEA

El pintor tardogótico Diego del Águila y el retablo mayor de la catedral de Tudela

Juan José Morales Gómez 29

---

## HISTORIA

La mujer en la epigrafía funeraria de la Navarra romana:  
¿integración en los modelos culturales procedentes de *Tarraco*?

Laura Díaz López 53

---

Derechos de molinos y aguas en los núcleos urbanos de Navarra  
(siglos XII-XIV)

David Alegría Suescun 75

---

*Mulieres Templi*. Cofradesas y donadas del Temple en el reino de Navarra  
(siglo XII)

Salvador Remírez Vallejo 93

---

Las hospitalarias en Bargota. Identidad y memoria (siglos XIV-XV)

María Bonet Donato / Julia Pavón Benito 115

---

Los Ezquerria, una familia de judíos de Estella en la Baja Edad Media

José Enrique Ávila Palet 133

---

Coronamientos y juramentos reales en Navarra (1494-1551):  
un proceso de adaptaciones

Alfredo Floristán Imízcoz 159

---

Burunda harana (XIII-XIX): herriak, populazioa, gaizkileak, ekonomia,  
onomastika

Jose Luis Erdozia Mauleon 175

---

# Sumario / Aurkibidea

<b>La comisión de frontera navarro-aragonesa de 1380</b> Mikel Ursua Lizarbe	233
<b>El pleito de las ferrerías de Artikutza y Urdallue (1496-1498). Conflictos sobre la explotación de recursos naturales en Navarra</b> Raquel Idoate Ancín	253
<b>Los Góngora y su tupida red clientelar. En la frontera y sin la frontera (1490-1531)</b> Iñaki Garrido Yerobi	279
<b>Perfil prosopográfico de los jesuitas navarros del antiguo colegio de Tudela</b> Rafael Fermín Sánchez Barea	297
<b>Vivir de la frontera. La prohibición de comercio con Francia en la segunda mitad del siglo XVII</b> Rubén Martínez Aznal	315
<b>Borbones contra Borbones: el frente pirenaico durante la guerra de la Cuádruple Alianza (1719)</b> Jorge Álvarez Palomino	333
<b>El camino francés. Tránsito de tropas por Navarra durante la guerra de Sucesión española (1700-1715)</b> Aitor Díaz Paredes	349
<b>Extensión de las fronteras culturales de Navarra en la Nueva España: migrantes navarros en el real de minas de Guanajuato a finales del siglo XVIII</b> Adriana Ortega Zenteno	365
<b>Zurbano, agente del reino en Madrid: su correspondencia entre 1833 y 1840</b> Mercedes Galán Lorda	383
<b>Las haciendas de Zozaya en Cuba de 1868 a 1909. Nuevas fuentes</b> José Fermín Garralda Arizcun	401
<b>Religiosidad, moralidad, prensa y filiación. La frontera del magisterio navarro, agosto de 1936</b> Reyes Berruezo Albéniz / Juan José Casanova Landivar / Francisco Javier Ema Fernández / Francisco Soto Alfaro	421
<b>La Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra y el Consejo de Cultura de Navarra, precedentes de la Institución Príncipe de Viana</b> Mercedes Mutiloa Oria	449

# Sumario / Aurkibidea

*Pax Avant: la paz y la palabra en las relaciones transfronterizas pirenaicas*  
Antonio Jesús Gorría Ipas 465

---

## DERECHO / ZUZENBIDEA

*Viejos y nuevos retos del derecho civil de Navarra*  
María Ángeles Egusquiza Balmaseda 483

---

*La proyección exterior de Navarra en Europa y la cooperación transfronteriza de Navarra tras el Amejoramiento del Fuero de 1982*  
Ildefonso Sebastián Labayen 501

---

## LOS TRABAJOS Y LOS DÍAS DEL AÑO 2018 / 2018ko LANAK ETA EGUNAK

*La Ley Foral de Derechos Culturales de Navarra*  
M.<sup>a</sup> Camino Barcenilla Tirapu / José Miguel Gamboa Baztán /  
Roldán Jimeno Aranguren / José Vicente Urabayen Azpilikueta 523

---

*Tesis doctorales sobre temática navarra de ciencias humanas, sociales y jurídicas, leídas en 2018*  
(Según la Base de datos Teseo del Ministerio de Educación) 531

---

*I-COMMUNITAS: Nuevo Instituto de Investigación de la Universidad Pública de Navarra*  
Juan María Sánchez-Prieto 539

---

*La difusión de la historia y la cultura de Navarra fuera de nuestras fronteras*  
Yolanda Cagigas Ocejo 549

---

*Aurreko urteen bidetik*  
Ángel Erro Jiménez 553

---

*Autores y autoras navarras en castellano, año 2018*  
Mikel Zuza Viniestra 557

---

*(Artistas + públicos) x instituciones culturales = acción artística*  
Celia Martín Larumbe 561

---

*Un año más con vida. La industria audiovisual y navarra en el 2018*  
Marga Gutiérrez Díez 573

---

# Sumario / Aurkibidea

<b>Ondarezain. Asociación de gestores de museos, colecciones museográficas permanentes y otros centros de exhibición pública de Navarra</b> Ainhoa Aguirre Lasa	585
<b>La Coral de Camara de Pamplona, Premio Principe de Viana de la Cultura. Reconocimiento merecido para el motor de la música de cámara en Navarra</b> Alicia Ezker Calvo	593
<b>Currículums</b>	601
<b>Analytic Summary</b>	611
<b>Normas para la presentación de originales / Idazlanak aurkezteko arauak / Rules for the submission of originals</b>	621

# Aurreko urteen bidetik

Ángel ERRO JIMÉNEZ

Escritor/Idazlea

[angerro@yahoo.es](mailto:angerro@yahoo.es)

Ohi baino nafar idazleen euskarazko liburu gutxiago zeudelako alarmak piztu zitzaizkidan, honako paper hau idaztera jarri aurretik, idazkide batek hala gaztigatuta. Ohi baino txosten eskasagoa osatuko nuen beldurra laster apaldu nuen, zertaz idatzi egon bazegoela egiaztatzean. Baina egia da aurreko urteekin alderatuta nafar idazleen ekoizpena ez dela gertatu hain ikusgarria. Liburu gutxi izaten jarraitu zuten. Fluktuazio txikiek panorama osoa antzaldara dezakete. Iaz zorioneko geunden, hiru eleberri esanguratsu, idazle kontsagratu banarena, argitaratuak zirelako. Aurten bakarra da. Duela bi urteko analisisian poesia liburuen ugaritasuna goraiatu genuen. Aurtengoa berriro da urte poetikoa. Poztekoa, jakina, baina gogora datorkit literatur sistema gehiegi garatu gabeetan poesia generoa izaten dela nagusi, gehien jorratu eta indartsuena. Iaz, eta duela bi urte, eta baita aurreko urtean ere, emakumezkoen presentzia eskasa nabarmendu genuen. Bere horretan jarraitzen du joera horrek: haur literaturako egile bat, helduen literaturan beste bat, poesian hirugarrena.

Honako hauek dira, iazko ekoizpenetik, guztiak ez bada (baten bat isuri ahal izan baitzait), liburu nabarmenenak, poesiarekin hasita:

*Ia hemen* (Pamiela), Juanjo Olasagarre (Arbizu, 1963) poetarena. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuaren bitartez, antolatu eta ongi hornitutako IV. Xabier Lete Poesia Sarian gailendutako obra, epaimahaiak adierazi bezala, gizon egin baten lana, heldutasunaren talaiatik sortua, ironiaz eta hausnarketa sakonez zipriztindutakoa. Olasagarre azkenaldian eleberrigile moduan ezagunagoa den arren (*Ezinezko maletak* edo iaz plazaratutako eta hemen iruzkindutako *Poz aldrebasa* nobelak, esaterako, bereak dira), poeta gisa abiatu zen euskal literaturan

(*Bizi puskak* eta *Puskak biziz* bezalako poema bildumekin), baina hemezortzi urte joan ziren haren poema berririk gabe.

*Hegodun poemak* (Denonartean argitaletxea), Aintzane Galardi Portu, Oihartzunen sortu baina Nafarroan kokatutako irakaslearena. Lehiaketa askotan saritutako poeta dugu Galardi. Honako poema liburu hau ere, Nafar Ateneoak eta Iruñeko Udalak deitutako «Iruña Hiria» III. Nazioarteko Poesia Sariketan irabazle suertatu baitzen, bertara aurkeztutako 22 lanetatik epaimahaiaren ahobatez. Jon Kortazarren hitzetan, «Galardik ohi duenez, historia bakarraren inguruan osatu du poema bilduma. Asmo bakarra, hizkera poetiko berezia. Hegodunak dira poemak andere pilotu baten inguruan, Amelia Earharte-en inguruan, idatzi duelako poema liburua. [...] Galardiren liburuek badute hainbat elkarrizketaren oihartzuna, hemen irudi bat, han aipu zuzena, irudi mundua beti, eta inpresioz eta sentsibilitatez eraikita mundua ageri da orrialdeetan eraikia».

Hasier Larretxeak (Arraiotz, 1982) urte emankorra izan du 2018koa, gaztelaniaz *El lenguaje de los bosques* (Espasa) eta euskaraz *Batzuen ametsak bertzeen zelai zulatuak dira* (Pamiela) plazaratu dituelako. Azken hau poema liburua da; Igor Estankona kritikariaren hitzetan, «zorrotza da hitzarekiko, surrealismoaren mugekiko. Poemategia sentsazioen biltegi bat da, aliterazioz eta antitesiz eta zentzu bikoitzez aberastutako leku ia fisiko bat [...] erreferentzia eta heldulekurik gabeko hausnarketa atemporalak, errepikapenaren puruz, musika antzeko bat bihurtzen dira, letania bat ez dena zertan literalki ulertu».

Josu Jimenez Maia ere (Iruñea, 1967) behin baino gehiagotan ekarri dugu orrialdeetara, olerkari emankorra bera ere. Aurten *Aingurak eta arrangurak* (Pamiela) izeneko poema liburua eman du argitara, hain maite duen haiku moldearen alde batera utzita oraingoan. «Bizitzak berak sortzen duen nekadura existentzialaz hitz egiten zaigu testu horietan [...]. Beste gai bat bakardadearena da, [...] existentzialismoz zipriztinduta. [...] Heriotza ere aipagai da liburu honetan. Baina bizitzak aurkezten dituen alderdi negatibo hauei guztiei alde positiboak kontrajartzen zaizkie. Bakardadea eta heriotza hizpide izateaz batera, amodioa ere aipatzen da, bere indar osagarriaz hornitua. Poesiaren indarra ere gai garrantzitsuetako bat da, amodioarekin batera poesiak existentzia nolabait osatzeko ahalmena duelarik, hitzaren bidez unibertsoa atzeman baitaiteke». Javier Rojo kritikariaren hitzak dira.

Sorkuntzazko lana izan gabe, poesiaren atal honetan aipatu nahiko nuke, beste inoiz egin dudana bezala, poeta anitzen lanak euskarara ekarri dituen nafar itzultzaile baten ekarpena, Susa argitaletxeko Munduko Poesia Kaierak bildumarako Joxemari Sestorainek osatutako Al Berto (Coimbra, 1948) poeta portuguesaren antologia, gehienbat poetak bere errezitaldietan errepikatzen zituen poemak oinarri hartuta harilkatutakoa. Beñat Sarasolak aitzinsolasean jakinarazten digunez, «Al Bertoren poesiaren ezaugarri nabarmenetako bat gorputzak eta haren alderdi (ustez) likitsak –semena, izerdia, listua...– duen presentzia da. Poesia goi-zeruekin erlazionatu ohi da maiz, baina Al Bertok poesia ere gorputzarena izan daitekeela erakutsi zuen [...]. Gayen arteko maitasunaren erretratugile aparta izan zen orobat, gutxi duena ikustekoa Mendebaldeko maitasun-poema kanonikoekin».

Narratibaren arloan, arestian esan bezala, eleberri bakarra dugu, beste ohiko egile nafar baten eskutik, Alberto Ladron Arana emankorretik (Iruñea, 1967). *Film zaharren kluba* (Elkar argitaletxea) lanean Leire Asiain foruzainaren beste misteriozko abentura bat aurkituko dugu. Oraingoan Foruzaingotik eszedentzian dago eta ikerketa xume bat onartzen du, adulterio kasu baten inguruan, bere ahizparen eskariz. Berehala susmatzen du adulterioaren atzean beste zerbait badagoela. Hortik aurrera gauzak nahaspilatzen hasiko dira. Aiora Sampedro kritikariak nabarmendu ditu «gainerako arte espresio-ekiko keinuak». «Pertsonaien gustu zinematografikoen bitartez, Ladron Aranak Alfred Hitchcocken pelikulekiko ispilu-jolas entretenigarria eraikitzen du. Eta nobelako krimenari tolestura batzuk gehitzen zaizkio».

Haur eta gazte literaturara salto egin behar dugu beste idazle nafar batek iaz egin-dako euskarazko lan bat topatzeko. Bi dira kasu honetan: *Gerra zikinkeriarri!*, Marimatrakak sailekoa (Elkar) eta *Bidean* (Denonartean); Ana Jaka García eta Garazi Arrula Ruiz idazleek idatzita hurrenez hurren; Iosu Mitxelena Unsain eta Helena Azkarragaurizar marrazkilarien ilustrazioekin, berriz ere, hurrenez hurren.

Saiakera generoak, aurten ere, izenburu gehiago eman dizkigu:

Juan Carlos Etxegoien «Xamar» (Garralda, 1956) idazle nafarrak orain arte euskal mundu tradizionalaz idatzi izan ditu bere lanak. 2018an plazaratu eman duen *Etxera bidean* (Pamiela) liburuak antzeko gaia erabiltzen du, baina perspektiba desberdina eman dio idazlanari. Javier Rojo kritikariak: «Memoria pertsonaletik abiatuta, eskualdearen memoria berreskuratzeko asmoz aurrera eramaten den prozesua azaltzen zaigu [...]. Istorioak eta historiak, batzuetan gogorrak (herria XIX. mendearen amaieran kiskalita geratu zenekoa; gerra osteko urteak) plazaratzen dira hemen, jende xumearen ahotik jasota. Eta horrela, Xamarrek etxerako bidea erakusten digu, eta horrek identitatean sakontzea ere esan nahi du, goitizena etxearen izenetik hartua du-eta».

Argitaletxe berak ere plazaratu du *Iruñeko historia* izeneko lan kolektiboa, Roldan Jimeno Juriok eta Iñaki Azkonak koordinaziopean, Iruñeko Udalak eta Nafar Ate-neoak Iruñeko historiari buruz 2002an eta 2003an antolatutako jardunaldiak oinarri dituen, baina ekarpen berri eta gaurkotuez aberastutakoa. Lehen aldia da Iruñeko historiara euskara hutsezko lan baten bitartez hurbilketa sakon eta zorrotza egiten dena, disziplina anitzeko ikuspuntu batetik. Hogeita hamar egiletik gora parte hartu duten lan mardul bezain jakingarri honetan.

Aitzol Lasa (Barañain, 1978) ez da dibulgazioa, literatura eta zientzia barnebiltzen duten generoan hasiberria. Iaz *Zirkulu polarraren koadratura* argitara eman zuen Pamiela argitaletxearen eskutik. Bertan «finlandiar hezkuntzaren errealitatea eta historia Euskal Herrikoarekin alderatuz, irakurleak zenbait gako eta adibide aurkituko ditu [...], prentsan hezkuntzari buruz agertzen diren titular sentzazionalisten atzean ezkututzen den egia argitzeko». Irakaskuntzari buruzko saiakera irudimentsua.

*ETA-ren zuzendaritzarekin azken elkarrizketa* osatu du Iñaki Soto Nolasco kazetari eta *Gara* egunkariaren zuzendariak (Iruñea, 1975) eta izen bereko liburuan bildu,



Txalaparta argitaletxeak argiratuta, «Gernikatik Arnagara» izenazpiarekin, erakunde armatuaren ibilbidearen amaierarekin bat eta azken urratsa egin aurretik eta maiatzaren 3an plazaratutako adierazpenaren bitartez erakundearen desegitea iragarri baino lehenago. Ia 400 galdera egin zitzaizkion ETaren azken zuzendaritzari.

Azkenik, komikiaren etiketa zailaren azpian (aldi berean saiakera eta eleberria izan daitekeen lan baten aurrean gaudelako) iaz atera zen, Txalaparta argitaletxean, aldi berean gaztelaniaz eta euskaraz, Mikel Santos 'Belatz' (Iruñea, 1974) marrazkilariak egindako *Gerezi garaia (Lucio Urtubiaren biografia ilustratua)*. Elkarrizketa ugari egin dizkio Belatzek Lucio Urtubia cascantetarrari lan hau osatzeko, «Luciok hainbestetan kontatutako pasadizoen inguruan, ekintzak, lekuak, pertsonak, gertakizunak, atmosferak iruditan zehaztasunez islatu ahal izateko». Lucio anarkista mitikoa ekintza-gizona dela diosku egileak eta hala dela frogatzen dute ekintzek eta marrazkiek ere.